

Ordenantza

Ordenanza

LASARTE-ORIAKO UDALERRIKO ETXEBIZITZEN
ERAIKINETAN IGOGAILUAK INSTALATZEKO
DIRU-LAGUNTZEN ERREGULATZAILEA

REGULADORA DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS
PARA LA INSTALACIÓN DE ASCENSORES EN
INMUEBLES RESIDENCIALES EN EL TÉRMINO
MUNICIPAL DE LASARTE-ORIA

LASARTE-ORIAKO UDALERRIKO ETXEBIZITZEN ERAIKINETAN IGOGAILUAK INSTALATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ERREGULATZEKO ORDENANTZA

1. artikulua. Helburua

Lasarte-Oriako Udalak igogailurik ez duten bizitzeko eraikinetan igogailuak instalatzeko ematen dituen diru-laguntzak arautzea du helburu arau honek, bai halaber ezkaratza eta igogailua maila berean ez duten eraikinetan arrapalak egiteko nahiz goratzeko plataformak edo beste elementu batzuk instalatzeko egin behar diren obretarako ematen dituenak arautzea.

2. artikulua. Onuradunak

1.- Zeinen ganean jarduketa egitea proposatzen den higiezinaren jabetza horizontaleko erregimenean eraikinen jabe diren pertsona fisikoek edo jabekideen komunitateek eskatu ahalko dute diru-laguntza.

Baldin eta jabetza horizontaleko erregimenean dauden eraikinak badira, behar bezala ordezkatzeko dituenaren bitartez jardungo dute jabekideen komunitateek.

2.- Jabekideen komunitatean bizi den pertsona batek mugikortasun murriztua duela eta oinez ibiltzeko, eskaileretan igotzeko edo barrera arkitektonikoak gainditzeko ahalmen-urritze iraunkorra duela kontsideratzeko, Elbarritasuna Kalifikatzeko Ebazpenean ezarritako baremo hauetako edozein akreditatu beharko du:

- Hirugarren pertsonen beharra determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuraduna baremoko A) atalean (Desplazamendua) sartua badago, gutxienez 2 puntu lortzen dituenean.
- Ahalmen urrituko pertsonari garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten dion mugikortasuneko

ORDENANZA REGULADORA DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA INSTALACIÓN DE ASCENSORES EN INMUEBLES RESIDENCIALES EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE LASARTE-ORIA

Artículo 1. Objeto

Es objeto de la presente Norma la regulación de las Ayudas Económicas que el Ayuntamiento de Lasarte-Oria concede para la nueva instalación de ascensores en inmuebles residenciales que carezcan del mismo, así como para las obras de instalación de rampas, plataformas elevadoras, instalación de elementos y cualquier otra obra de accesibilidad entre las que se incluyan las que sirvan para salvar el desnivel existente entre el portal y el ascensor, y los accesos a los mismos inmuebles.

Artículo 2. Beneficiarios/as

1.- Podrán solicitar subvención las personas físicas o Comunidades de propietarios de edificios en régimen de propiedad horizontal del inmueble sobre el que se propone la actuación.

En caso de edificios en régimen de propiedad horizontal, las comunidades de propietarios actuarán a través de quien ostente debidamente la representación de la misma.

2.- A los efectos de considerar que una persona residente en la Comunidad manifiesta una movilidad reducida, con disminución permanente para andar, subir escaleras o salvar barreras arquitectónicas se deberá acreditar cualquiera de los dos siguientes baremos establecidos en la Resolución de Calificación de Minusvalía:

- Baremo para determinar la necesidad de asistencia de terceras personas. Se considerará la existencia de tal dificultad siempre que el beneficiario se encuentre incluido en el apartado A) (Desplazamiento) del baremo, cuando obtenga un mínimo de 2 puntos.
- Baremo para determinar la existencia de dificultades de movilidad que impidan la utilización de transportes

zailtasunik ba ote den determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuraduna baremoko A (aulkiak 9), B (bastoiak) edo C (jokabidea) ataletan deskribaturiko egoeretakoren batean sartua badago, edo, ez egonda ere, gutxienez 7 puntu lortzen baditu, aipaturiko baremo horretako gainerako ataletan jasoriko egoeretakoren batean aurkitzen delako.

Era berean, ezinbestekoa da pertsona hori eraikin horretan errolatua egotea.

3. artikulua- Diru-laguntzetarako aukera izateko baldintzak

1.- Diru-laguntzak emango badira, ezinbesteko baldintza izango da aurrekontuetan horretarako kontu-saila izatea, haiek finantzatzeko adinako kredituak jasoko dituen.

2.- *Eraikinen altuera*: Diru-laguntzak jaso ahal izateko, eraikinek, oro har, beheko solairua eta beste hiru solairu izan behar dituzte (BS + 3).

Eraikinek ez du aurreko baldintza hori bete beharrik izango baldin eta eraikinean mugikortasun murriztua duen pertsonarik bizi bada, oinez ibiltzeko, eskaileretan igotzeko edo barrera arkitektonikoak gainditzeko ahalmen-urritze iraunkorra duena, protesi edo gurpil-aulkirik erabili behar izan nahiz ez izan, betiere mugikortasuna etxebizitza hori okupatu ondoren murriztu zaiolarik, edo hirurogeita hamar (70) urte baino gehiago dituen pertsonarik bizi bada.

Kasu horietan, Udalak eraikinen altuera kontuan hartu gabe emango ditu diru-laguntzak, betiere gainerako baldintzak betez gero.

3.- *Eraikinen antzinatasuna*: Diru-laguntza jasoko badute, etxebizitzaren eraikinek 10 urte baino zaharragoak izan behar dute. Eraikinek ez dute baldintza hori bete beharrik izango baldin eta eraikinean mugikortasun murriztuko pertsonarik bizi bada, betiere artikuluko 1. artikuluan definitutako egoera horretan etxebizitza okupatu ondoren gertatu delarik, edota eraikinean hirurogeita hamar urte baino gehiagoko pertsonarik bizi bada.

públicos colectivos de la persona con discapacidad. Se considerará la existencia de tal dificultad siempre que el beneficiario se encuentre incluido en alguna de las situaciones descritas en los apartados A) (Sillas 9), B) (Bastones) o C) (Conducta) del baremo o, aun no estándolo, cuando obtenga un mínimo de 7 puntos por encontrarse en alguna de las situaciones recogidas en los restantes apartados del baremo.

Así mismo se requiere que dicha persona se encuentre empadronada en el inmueble.

Artículo 3. Requisitos para optar a las ayudas

1.- Para la concesión de las ayudas será requisito indispensable la existencia de partida presupuestaria que contemple los créditos suficientes para su financiación.

2.- *Altura de los inmuebles*: Las alturas de los inmuebles residenciales objeto de ayudas deberán ser superiores, con carácter general, a planta baja más tres pisos (PB+3).

Quedan exceptuados de la anterior condición aquellos inmuebles residenciales en que habiten personas de movilidad reducida, con disminución permanente para andar, subir escaleras o salvar barreras arquitectónicas, se precise o no el uso de prótesis o de sillas de ruedas, a quienes les haya sobrevenido esta situación con posterioridad a la ocupación de la vivienda o personas mayores de setenta años (70 años).

En estos casos, las ayudas municipales se otorgarán, cumplidos el resto de los requisitos, con independencia de las alturas existentes.

3.- *Antigüedad de los inmuebles*: Con carácter general la antigüedad de los edificios residenciales objeto de ayuda deberá ser superior a 10 años. Quedan exceptuados de esta condición aquellos inmuebles residenciales en que habiten personas de movilidad reducida a quienes les haya sobrevenido esta situación, definida en el apartado 1.º de este artículo, con posterioridad a la ocupación de la vivienda, o habiten personas mayores de setenta años.

Kasu horietan, Udalak eraikinen antzinatasuna kontuan hartu gabe emango ditu diru-laguntzak, betiere gainerako baldintzak betez gero.

4.- Administrazio Publikoen Ondarearen Legeko 94. artikulua xedatzen duenaren arabera, nahitaezkoa da, halaber, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko 20. artikulua erregulatzen dituen eta administrazioarekin kontratatzea debekatzen duten zirkunstantziak batean inkurritu ez egotea. Beste eskakizun batzuen artean, nahitaezkoa da:

- Udaleko Ogasunaren zordun ez izatea ezein kontzepturengatik.

5.- **Diru-laguntza horietatik kanpo** geratzen dira igogailuak aldatzeko obrak; familia bakarreko edo bi familiako etxe bakartuetan nahiz ilarakoetan igogailuak instalatzekoak eta, oro har, promotoreek eta kontratistek berek egindako zimendu berriko eraikinetan igogailuak instalatzeko jarduketak.

4. artikulua. Diru-laguntza.

1.- Igogailu berriak instalatzeko diru-laguntza, itzuli beharrik gabekoa, aurrekontu osoaren %20 izango da, BEZA barruan sartu gabe, salbu eta aurrekontuetan horretarako kreditu nahikorik ez badago, ezen, kasu horretan, portzentajea geratzen den kreditu-kopurura doitu da. Instalatuak igogailu berri bakoitzeko gehienez emango den zenbatekoa ezingo da 10.818,00 € baino gehiago izan.

2.- Ezkaratzaren eta igogailuaren artean dagoen desnibela gainditzeko balioko duten **arrapalak, plataformak eta gainerako obrak** egiteko diru-laguntza, itzuli beharrik gabekoa, aurrekontu osoaren %20 izango da, BEZA barruan sartu gabe, salbu eta aurrekontuetan horretarako kreditu nahikorik ez badago, ezen, kasu horretan, portzentajea geratzen den kreditu-kopurura doitu da. Obra horiengatik gehienez emango den kopurua ezingo da 1.803,00 € baino gehiago izan, arrapalaren kasuan. Gainerakoetan, berriz, 3.606,00 € litzateke gehienezko zenbatekoa.

En estos casos, las ayudas municipales se otorgarán, cumplido el resto de los requisitos, con independencia de la antigüedad del edificio.

4.- Conforme dispone el artículo 94 de la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas, igualmente es preciso no estar incurso en alguna de las circunstancias que prohíben contratar con la administración reguladas en el artículo 20 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Entre otros requisitos es preciso:

- No ser deudor de la Hacienda municipal por ningún concepto.

5.- Quedan **excluidos de estas ayudas** las obras de sustitución de ascensores, la instalación de ascensores en edificios de tipología de villa unifamiliar o bifamiliar, aislada o adosada y, en general, las actuaciones de instalación de ascensores en edificios de nueva planta realizadas por los propios promotores y contratistas.

Artículo 4. Ayuda.

1.- La ayuda económica para la instalación de **nuevos ascensores** consistirá en una subvención a fondo perdido del 20% del presupuesto total, IVA no incluido, salvo que no exista crédito presupuestario suficiente en cuyo caso el porcentaje se ajustará al monto de crédito que resta. La cuantía máxima por nuevo ascensor instalado, no podrá ser superior a 10.818,00 €.

2.- La ayuda económica para la instalación de **rampas, plataformas y demás obras** que sirvan para salvar el desnivel entre el portal y el ascensor consistirá en una subvención a fondo perdido del 20% del presupuesto total, IVA no incluido, salvo que no exista crédito presupuestario suficiente en cuyo caso el porcentaje se ajustará al monto de crédito que resta. La cuantía máxima por dichas obras no podrá ser superior a 1.803,00 €, en el caso de las rampas. En el resto, la cuantía máxima alcanzaría los 3.606,00 €.

3.- Diru-laguntza horiek lor litekeen beste edozeinetatik apartekoak dira. Hala ere, instalazio bera gauzatzeko beste diru-laguntzarik lortzen bada, haien guztien batuketaren zenbatekoak ezingo du gainditu jarduketa subentzionatuaren kostua. Azken kasu horretan, muga hori gainditzeko ez den arte murriztuko da udalaren laguntza.

5. artikulua.- Diru-laguntzak adjudikatzeko lehentasunezko ordena

1.- Baldin eta gertatzen bada diru-laguntzen eskaeren kopurua hainbestekoa dela non, aurreko irizpideak aplikatuta, subentziona daitezkeen gehieneko zenbatekoen baturak Udalaren Aurrekontu Orokorrean aurreikusitako kopuru osoa gainditzeko baitu, jarduketa bakoitzaren interes handiagoa edo txikiagoa ponderatuko du Udalak, emateko dagoen kreditua eskatzaileen artean banatzeko xedez.

2.- Aurreko paragrafoan xedatzen denaren arabera, lehentasunezko ordena honi jarraituko zaio diru-laguntzak emateko ebazpena ematean:

- A) Eskabidea eta arau honetako 8. artikuluan aipatutako beharrezko agiri guztiak aurkeztutako hurrenkera.
Hilabete natural berean aurkeztutako eskabide guztiek tratamendu bera izango dute lehentasunari dagokionez.

- B) Baldin eta Komunitate batean arau honetako 2. artikuluan definitutako mugikortasun murriztua duen norbait bizi bada, betiere murrizte hori etxebizitza okupatuz geroztik gertatu bazaio, edota hirurogeita hamar urte baino gehiagoko pertsonarik bizi bada, komunitate horrek lehentasuna izango du denbora-bitarte horretan aurkeztutako eskabideen artean.

3.- Estas subvenciones son independientes de cualquier otra que se pudiese conseguir. No obstante, si se obtuvieran otras subvenciones para la misma instalación el importe de la suma de todas ellas no podrá superar el coste de la actuación subvencionada. En este último caso, se reducirá la ayuda municipal hasta que no se supere tal límite.

Artículo 5. Orden de prioridad para la adjudicación de las ayudas

1.- Si se diera la circunstancia de que el número de solicitudes de subvención fuera tal que, en aplicación de los criterios anteriores, la suma de las cuantías máximas subvencionables rebasara la cantidad global prevista en el Presupuesto General del Ayuntamiento, se ponderará el mayor o menor interés de cada actuación en orden a repartir entre los solicitantes el crédito disponible

2.- Conforme a lo dispuesto en el apartado anterior el orden de prelación que se seguirá para dictar resolución de concesión de ayudas, será el siguiente:

- A) El de presentación de la solicitud y de todos los documentos pertinentes, reseñados en el artículo 8 de esta Norma.
Todas las solicitudes presentadas durante el mismo mes natural, tendrán la misma consideración a efectos de prelación.

- B) Las Comunidades en las que habitan personas de movilidad reducida, sobrevenida con posterioridad a la ocupación de la vivienda, definida en el artículo 2 de esta Norma, o personas mayores de setenta años, tendrán prioridad dentro las presentadas en el período de tiempo citado.

Jarraitu beharreko ordenaz den bezainbatean, honako prioritare talde hauek definitzen dira:

- a) 3 puntu lortuko dira 2. artikuluan ezarritako baremoetatik edozein akreditatzen duen pertsona bakoitzeko.
- b) 2 puntu lortuko dira **90 urte baino zaharrago**ko pertsona bakoitzeko.
- c) 1,5 puntu lortuko dira **80 eta 89 urte bitarteko** pertsona bakoitzeko.
- d) Puntu bat lortuko da **70 eta 79 urte** bitarteko pertsona bakoitzeko.

Pertsona bat aldi berean puntu paragrafo bat baino gehiagotan aurki badaiteke ere, a) paragrafoan jasotako zirkunstantziak ezingo zaizkio metatu b), c) eta d) paragrafoetan jasotakoei. Konkurrentziako kasuetan, puntu-kopuru gehienekoa bakarrik hartuko da kontuan.

- 3.- Eraikinaren altuera: 0,1 puntu lortuko dira 3.2 artikuluan ezarritako altuera-kopuru minimoa gainditzen duen solairu bakoitzeko.

6. artikulua. Baliakizun finantzarioak

Arau hau aplikatzeko aurreikusitako baliakizunak Lasarte-Oriako Udalaren urteko aurrekontuetan ageri direnak izango dira. Behin kontu-sail hori agortutakoan, ez da laguntza gehiagorik izango, eta ondorioz gabe geratuko dira aurkeztutako eskabideak, nahiz eta dagokien obra-lizentzia izan, urte finantzario beraren barruan emana, non eta periodo horretan bertan diru-izendapen gehiago xedatzen ez diren.

7. artikulua . Laguntzen tramitazioa

1.- Arau honetan ezarritako diru-laguntzak eskatu nahi dituztenek Lasarte-Oriako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskabidea, horretarako jarritako ereduaren

En cuanto al orden a seguir, se definen los siguientes grupos de prioridad:

- a) Se obtendrá una puntuación de 3 puntos por cada persona que acredite cualquiera de los dos baremos establecidos en el artículo 2º.
- b) Se obtendrá una puntuación de 2 puntos por cada persona **mayor de 90 años**.
- c) Se obtendrá una puntuación de 1,5 puntos por cada persona de **entre 80 y 89 años**.
- d) Se obtendrá una puntuación de 1 punto por cada persona de entre **70 y 79 años**.

Las circunstancias recogidas en el apartado a) no son acumulables a las recogidas en los apartados b) c) y d), aunque una persona pueda encontrarse simultáneamente en varios apartados. En supuestos de concurrencia, sólo se tendrá en consideración la de mayor puntuación.

- 3.- La altura del inmueble: se obtendrá una puntuación de 0,1 punto por cada planta que supere el número de alturas mínimo que se establece en el artículo 3.2.

Artículo 6. Recursos financieros

Los recursos previstos para aplicación de esta Norma serán los que figuren en los presupuestos anuales del Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Una vez agotada dicha partida no habrá más ayudas y quedarán sin efecto las solicitudes presentadas que dispongan de la correspondiente licencia de obras otorgada dentro del propio ejercicio, salvo que en este mismo periodo se habiliten nuevas consignaciones.

Artículo 7. Tramitación de las ayudas

1.- Para acogerse a las ayudas económicas previstas en esta Norma, los/as interesados/as deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Lasarte-Oria la

araberakoa, hurrengo artikuluan aipatzen diren agiri guztiekin batera.

2.- Baldin eta aurkeztutako eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo beharrezkotzat eskatutako dokumentuak erantsi ez bazaizkio, errekerimendua egingo zaie interesatuei, arren eta hamar eguneko epean hutsa zuzen dezaten edo aginduzko dokumentuak ekar ditzaten, adieraziz ezen, horrela egin ezean, beren eskaeretan atzera egindakotzat hartuko direla eta eskabidea beste inolako tramiterik egin gabe artxibatuko dela, indarrean dagoen araudiaren arabera.

3.- Eskaerak egiteko epeak hilabete bakoitzaren azken egunean itxiko dira hilero, eta beharrezkotzat eskatutako **dokumentazio guztia** osatua daukaten eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan. Epe horretatik kanpo, hurrengo hiletik aurrera izango ditu ondorioak.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1.- Eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Obrak egiteko lizentziaren eskabidea.
- Teknikari eskudunak formulatutako proiektua eta kontu-sailka banatutako aurrekontua.
- Komunitatearen akta, bi erabaki hauek hartu direla ageri duena: batetik, igogailua instalatzea, eta, bestetik, administratzaileari edo presidenteari ahalmena ematea komunitatea ordezkatzeko, diru-laguntza kobratzeko eta diru-laguntzaren ordainagiria egiteko.
- Elbarritasuna edo adina egiaztatzen duen agiria, halakorik frogatu behar izanez gero (DNIaren kopia). Bi kasuetan, eraikinean erroldatuak egon beharko dute.
Bizilekuaren baldintza Udalak ofizios egiaztatuko du.
- Jabekideen Komunitatearen bankuko kontu-zenbakia (20 digitu), diru-laguntza han sartzeko.

3.- Diru-laguntza emateko erabakia jakinarazi eta handik hilabeteko epean,

correspondiente solicitud, según el modelo previsto, con toda la documentación a que se hace referencia en el artículo siguiente.

2.- Si las solicitudes presentadas no estuvieren debidamente cumplimentadas o no se adjuntase la documentación exigida, se requerirá a los interesados para que, en un plazo de diez días, subsanen la falta o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistidos de sus peticiones, archivándose la solicitud sin más trámite, de acuerdo con la normativa vigente.

3.- Los plazos de solicitud se cerrarán todos los meses antes del último día de cada mes y solo se considerarán aquellas solicitudes que tengan completadas **la totalidad de la documentación** exigida. Fuera de este plazo surtirá efectos a partir del mes siguiente.

Artículo 8. Documentación a aportar

1.- Los/as solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

- Solicitud de licencia de obras.
- Proyecto formulado por Técnico/a competente y Presupuesto descompuesto por partidas.
- Acta de la Comunidad acordando la instalación del ascensor y facultando al administrador/a o presidente/a para representar a la comunidad, realizar el cobro de la ayuda correspondiente y emitir recibo de la misma.
- Certificado de minusvalía en su caso, y justificante relativo a la edad (Copia D.N.I.). En ambos casos, deberán encontrarse empadronadas en el edificio.
El requisito de la residencia se verificará de oficio por el Ayuntamiento
- Nº cuenta bancaria (20 dígitos) de la Comunidad de propietarios, a efectos del ingreso de la subvención.

3.- A partir de la comunicación de la concesión de la ayuda, y en el plazo de un mes,

igogailu-instalatzaillearekin egindako obra-kontratua aurkeztuko da.

9. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Obrak lizentzian seinatzen diren baldintzen eta epeen arabera egingo dira.

Obrak amaitzean, obra-amaierako ziurtagiria aurkeztuko dute, obren zuzendari teknikoak izenpetua, edo haren esku-hartzea aginduzkoa izan ez bada, obra egin duenaren obra-amaieraren deklarazioa; bi kasuetan, faktura edo amaierako likidazioarekin eta diru-laguntza eskatu dutenen oniritziarekin batera aurkeztu beharko da.

Diru-laguntzen titularrek igogailua instalatzeko jasotako diru-laguntza guztien zenbatekoa justifikatuko duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, 4. artikuluan ezarritakoa bete aldera.

10. artikulua. Laguntza emateko erabakia eta ordainketa

Hirigintzako Departamentuak proposaturik eta Alkatearen Ebazpenaren bidez diru-laguntza ematea ebatzi denean, haren pagamendua era honetara egingo da:

- %50 igogailua instalatzeko obrak hastean.
- Gainerako %50 obra amaitu dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu ondoren.

Nolanahi ere, azken ordainketa udaleko zerbitzu teknikoek aldeko irizpena eman ondoren egingo da, behin obren exekuzioa amaitutakoan eta obra-amaierari dagokion dokumentazioa (aurreko artikuluan adierazitakoa) eta jasotako diru-laguntza guztien dokumentazioa aurkeztutakoan.

11. artikulua. Diru-laguntzen errebokazioa

Onuradunak hartutako konpromisoak eta baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du diru-laguntza erabat edo partzialki errebokatzea, aurretik interesatuari audientzia emanda, eta,

se aportará el contrato de obra con el ascensorista.

Artículo 9. Obligaciones de los beneficiarios

Las obras habrán de realizarse con arreglo a las condiciones y los plazos que se marquen en la licencia.

Finalizadas las obras presentarán el certificado de fin de obra suscrito por el técnico director de las mismas o, en caso de que no haya sido preceptiva la intervención de aquél, declaración de fin de obra de quien la haya ejecutado, en ambos casos acompañado de la factura o liquidación final y del visto bueno de quienes hayan solicitado la subvención.

Los titulares de las subvenciones deberán aportar documentación que justifique el montante final de las subvenciones recibidas para la instalación del ascensor, a fin de cumplimentar lo previsto en el artículo 4.

Artículo 10. Concesión y abono de la ayuda

La ayuda se hará efectiva, una vez se haya resuelto su concesión, a propuesta del Departamento de Urbanismo y por Resolución de la Alcaldía, en la forma siguiente:

- El 50 % al inicio de las obras de instalación del ascensor.
- El 50 % restante, previa presentación de la certificación del fin de obra.

En todo caso, el último pago de las mismas se efectuará, previo informe favorable de los servicios técnicos municipales, una vez finalizada la ejecución de las obras y presentada la documentación de fin de obra correspondiente señalada en el artículo anterior y la relativa a la totalidad de las subvenciones recibidas

Artículo 11. Revocación de las subvenciones

El incumplimiento de las condiciones y compromisos contraídos por el beneficiario conllevará la revocación total o parcial de la subvención, previa audiencia del interesado y

diru-laguntza jasoa badauka, zenbatekoa itzuli egin beharko du.

BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

Arau honetan ezarritakoa aplikatzekoa izango zaie bai udal-lizentzia eskatu edo eman eta gauzatu gabe dauden jarduketei, bai gauzatzen ari diren edo burututa daudenei, betiere azken horiek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako udal-lizentzia baldin badaukate.

AZKEN XEDAPENA

Lehena.- Arau honetan ageri diren laguntzen zenbatekoak urtero errebisatuko dira, Kontsumoko Prezioen Indizeen Sistemako indize orokor nazionalaren portzentajeak aurreko urte naturalean izandako bariazioaren arabera.

Bigarrena.- Arau hau aplikatzea urte finantzario bakoitzeko aurrekontuetan beharrezko kreditua jasoko duen kontu-saila izateari baldintzatua dago.

Hirugarrena.- Alkateari baimena eman zaio Ordenantza hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren instrukzioak emateko.

Laugarrena.- Ordenantza hau 2007ko otsailaren 17an izan zen onetsia eta 2007ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela segituko du aldatzea edo ezeztatzea erabakitzen den arte.

Lasarte-Orian, 2007ko urtarrila

obligará a reintegrar su importe si ya se hubiera percibido.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Lo dispuesto en el esta norma será de aplicación tanto a las actuaciones sin ejecutar para las que se haya solicitado u otorgado licencia municipal, como aquellas que estén en curso de ejecución o concluidas siempre que cuenten con licencia municipal otorgada a partir del 1 de enero de 2007.

DISPOSICIÓN FINAL

Primera.- Los importes de las ayudas que figuran en esta norma serán revisados anualmente de conformidad con la variación porcentual sufrida por el índice general nacional del Sistema de Índices de Precios de Consumo en el año natural inmediato anterior.

Segunda.- La aplicación de esta norma está supeditada a la existencia en cada ejercicio de la partida presupuestaria que contemple el crédito necesario.

Tercera.- Se autoriza al Alcalde para dictar cuantas instrucciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Ordenanza.

Cuarta.- Esta Ordenanza fue aprobada el 17 de febrero de 2007 y entrará en vigor el 1 de enero del 2007 y así seguirá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Lasarte-Oria, enero de 2007

Erantsi beharreko dokumentazioa	Documentación a adjuntar
<ul style="list-style-type: none"> - Entitatearen arduradunaren edo haren ordezkariaren DNla (fotokopia). - Beste diru-laguntza batzuk eskatzearen gaineko deklarazioa. - Obligazio tributarioak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez egunera dagoela akreditatzen duen agiria edo Udaleko departamentuari edo dagokion erakunde autonomoari informazio hori eskatzeko baimena ematen dion agiria (kasu horretan, markatu eskabidean dagokion laukitxo). - Kasu bakoitzari dagokion dokumentazio osagarria, oinarrien arabera: <p style="text-align: center;">IGOGAILUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Obrak egiteko lizentziaren eskabidea. ✓ Teknikari eskudunak formulatutako proiektua eta kontu-sailka banatutako aurrekontua. ✓ Komunitatearen akta, bi erabaki hauek hartu direla ageri duena: batetik, igogailua instalatzea, eta, bestetik, administratzaileari edo presidenteari ahalmena ematea komunitatea ordezkatzeko, diru-laguntza kobratzeko eta diru-laguntzaren ordainagiria egiteko. ✓ Elbarritasuna edo adina egiaztatzen duen agiria, halakorik frogatu behar izanez gero (DNlaren kopia). Bi kasuetan, eraikinean erroldatuak egon beharko dute. <p style="padding-left: 40px;">Bizilekuaren eskakizuna Udalak ofizioz egiaztatuko du</p> <p>Diru-laguntza emateko erabakia jakinarazi eta handik hilabeteko epean, igogailu-instalatazailearekin egindako obra-kontratua aurkeztuko da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - DNI de la persona responsable o representante de la entidad (fotocopia). - Declaración sobre otras solicitudes de subvenciones. - Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social o autorización al departamento del Ayuntamiento o al organismo autónomo correspondiente para que solicite dicha información (en este caso, marque la casilla correspondiente en la solicitud). - Documentación complementaria de cada caso, según las bases.: <p style="text-align: center;">ASCENSORES</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Solicitud de licencia de obras. ✓ Proyecto formulado por Técnico/a competente y Presupuesto descompuesto por partidas. ✓ Acta de la Comunidad acordando la instalación del ascensor y facultando al administrador/a o presidente/a para representar a la comunidad, realizar el cobro de la ayuda correspondiente y emitir recibo de la misma. ✓ Certificado de minusvalía en su caso, y justificante relativo a la edad (Copia DNI). En ambos casos, deberán encontrarse empadronadas en el edificio. <p style="padding-left: 40px;">El requisito de la residencia se verificará de oficio por el Ayuntamiento.</p> <p>A partir de la comunicación de la concesión de la ayuda, y en el plazo de un mes, se aportará el contrato de obra con el ascensorista.</p>
Diru-laguntza jasotzearekin hartzen diren konpromisoak	Compromisos que se adquieren al obtener la subvención
<ul style="list-style-type: none"> - Programatik eratorritako erantzukizunak bere gain hartzea. - Behar diren baimen guztiak lortzea. - Programa garatzen ari dela gertatzen den edozein gorabehera Udalari jakinaraztea, gertatu bezain laster. - Diru-laguntza itzultzea baldin eta gastua egiten ez bada. - Diru-laguntza itzultzea baldin eta egiaztatzen bada haren xedeko helburuak nabarmen aldatu direla. - Udalak adierazten dituen betekizun guztiak eta aplikatzekoa den araudiak ezarritako guztiak betetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Asumir las responsabilidades que se deriven del programa. - Obtener todas las autorizaciones necesarias. - Comunicar al Ayuntamiento cualquier eventualidad en el desarrollo del programa, en el momento en que se produzca. - Devolver la subvención si el gasto no se produce. - Devolver la subvención si se comprueba una modificación sustancial de los fines para los que se concedió. - Cumplir todos los requisitos que el Ayuntamiento indique y la normativa aplicable.
Datuen babestea	Protección de datos
<p>Zure datu pertsonalak fitxategietan sartuko ditu Udalak, bere gestioari berez dagozkion eginkizunak egiteko. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideak balia ditzakezu, Udaletxeko Erregistro Orokorrean idatzi bat zuzenduz.</p>	<p>Sus datos personales se incluirán en ficheros con el fin de realizar las tareas propias de la gestión municipal. Puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 dirigiendo un escrito al Registro General del Ayuntamiento</p>